

HAIZEA, EGUZKIA, ELEKTRIKA, LITIOA, HIDROGENOA...

ETA ORAIN BUELTA IKATZERA?

Ikatzaren aroa aspaldi amaitutzat jo eta argindar berderako jauzi betean sartuak omen ginenean, argindarraren prezioak ohartarazi digu europarroi zein ataka estuan trabatuta dagoen gure sistema ekonomiko osoa: gasa urritzen biltegietan, petrolioaren prezioa gora, berriztagarriek ezin ase elektrizitate eskari guztia... COVID-19aren osteko energia gosea batetik, neguaren kezka bestetik, Europak Errusiara jo du ikatz eske, erdi isilpean bada ere.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Bloomberg agentziak honakoa argitaratu du irail amaieran, globalizazio neoliberalaren aktualitatea azaltzen duten kroniketako batean: "Orain Europaren energia-merkatu arazoz beteak ez dio soilik gas naturala eskatzen Errusiari. Argindar ekoizle europarrak behartuta aurkitu dira Errusiari ikatz gehiago eskatzera, nolabait arindu nahian gainean daukaten energia krisia, batetik negua hurbiltzen eta bestetik gasa inoizko prezio garestienera".

Europa ikatzera itzuli? "Hori txinatarren kontua da", esango dizu hedabide nagusiak behatzen dituen herritar zintzoak. Txinak osteria ikatzera jotzea erabaki baitu, COVID-19aren osteko beroaldi ekonomikoan energia gabeziak bere herritarrak negu hotzaren mende utziko dituen beldurrez. Aspaldiko argindar etenik gogorrenak ari dira nozitzen, jarduera ekonomikoa bezala herritarren eguneroko bizimodua eteten dituztenak eta Pekingo gobernuak meategi guztiei agindu die bete-betean produzitzeko, albiste agentziek urrian azaldu dutenez.

Barne Mongolia eta Shanxi eskualdeetako meategiei produkzio topeak kendu dizkiete, adibidez. Barne Mongoliak aurtengo muga 178 milioi tona ikatzetan ezarrita bazeukan, 98 milioi gehiago ekoiztu beharko ditu Pekindik Estatu Kontseiluak manatua betetzeko, eta jada itxita zeuzkan dozenaka meategi berri-

lanean jarri ere bai. Neurriokin, hala ere, Txinak ez du lortuko arazoa erabat konpontzea eta argindarra murrizten jarraitu beharko du. Zenbait adituk aurreratu du negu honetan industriaren jarduera %12an urritu beharko dela, eta are gehiago hotzaldi bereziren bat gertatuz gero. Horri gehitu argindar konpainia handi batzuek kiebra egiteko aukera ikatzaren garestitzeagatik eta... uler daiteke nola osatuz doan Txinak mundu osora zabalduko lukeen estanflazioaren (hazkunderik ez + inflazioa) koktela.

Hori dena Txinan. Baina, klimaren krisia bideratzeko Mendebaldeko agintariek egin dituzten trantsizio-promesen zorigaiztorako, ikatzaren afera gureganaino ere heldu da.

Reuters agentziak zabaldu duenez urriaren 12an, "gasaren prezioaren igoerak Europa bultzatzen du ikatzera". Joera ulertzekotan, ekuazioan sartu behar da karbonoaren prezioa ere; hau da, klimaren aldaketaren kontrako estrategia neoliberallean karbonoa isurtzeari jarritako prezioa, isuri-eskubideen salerosketan Europako Emisio Salerosketen Sistemak (EU ETS, ingelesezko sigletan) une bakoitzean markatzen duena.

Gauza da 2021 hasieratik gasa %400 (sic) garestitu dela, ikatza %200 eta CO2 isuriak %85. Hiru osagaiak kontutan hartuta joan den uztailean arte ar-

gindar konpainiei merkeago ateratzen zitzairen gasa kiskaliz funtzionatzea, baina geroztik ikatza da irabazle. Europako ikatz meategi gehienak zerraturik, elektrika europarrek Errusiara jo dute horren eske eta handik arrapostua: nekez hornitu ahalko dituztela, lehendik ere ikatz eskari handia zeukatelako Asiatik. Panorama polita Glasgowko COP26 klima gailurra girotzeko...

CO² ISURIAK MURRIZTU EZINEAN

Trantsizioaren bide famatuan Europa egiten ari den atzerako urrats handi honen esanahiaz galdezka *Newsweek* astekariak bi adituren iritzia kontrajarri azaldu ditu. Dirk Buschle College of Europe unibertsitatean Europako Energia eta Klima Politika katedraren arduradunak uste du trumoi aldi honek energia berriztagarrietara are inbertsio gehiago ekarriko dituela: "1970eko hamarkadako petrolio krisietan zenbait herrialdek, Alemaniak esaterako, sinetsi zuten etxean ikatza ekoitziz arinduko zutela kanpoko erregaiekiko menpekotasuna. Baina gutxi iraun zuen amets hark, laster petrolioaren prezioak normaldu eta, aldiz, ikazkintzak diru-laguntza garestiak behar izan zituelako".

Ralph Schoellhammer Vienako unibertsitatean nazioarteko harremanen irakasle denak egoeraren errudun egiten ditu ekologistak, nuklearrei bidea itxi dietelako: "Klimaren politika Gobernu-



BELCHATOW

Herrian dago (Polonia)
Europako ikatz meategi eta
zentral termiko handiena.
Itxiko ote dute 2036rako,
agindu bezala?
Argazkia: Poland Coal.

Kanpoko Erakundeek eta gazte aktibistek diktatu dute, ez ebidentzia zientifikoak, eta orain atzera egitea oso zaila da. (...) Erregai fosiletatik irtetea ameskeria batean egon da oinarritua: Europako herriarren eguneroko bizitzetan ez zuela ondoriorik ekarriko. (...) Gauzak berdin jarraitzekotan, Berdeen mugimenduaren amaieraren hasiera izan daiteke, Europa energia iturri alternatiboetara eramatearen kosteak handiagoak izango baitira klase baxuenetako jendeek suportatzeko prest dauden sakrifizioak baino”.

Oso bestelako interpretazioa egin du Antonio Turiel ingeniariak beti ere gaitan erreferentziazkoa den *Crash Oil* blogean. Laburbilduko dugu. Europan gasaren krisia –hori baitago argindarraren garestitzearen giblean ere– gogortzen

ari zen une berean paraleloan gertatu da ikatzarena, batik bat Txina eta India kolpatu dituen: Txinak bere energia guztia- ren %65 zor dio ikatzari eta Indiak %70. Baina petrolioarekin gertatu bezala, amaitzen ari da ikatz merkea ere. Mundu osoko meategiek gero eta errendimendu kaskarragoa daukate, kalitate txarrago- goko ikatza koste handiagoz ekoitziz.

Beraz, dio Turielek, mundu mailan gainditzen ari gara edo gainditze- ar gaude ikatzaren gailurra, baina gaurko ekoizpen mailari hamarkada batzuetan eutsi ahalko zaio. Beraz, karbono isuriek handitzen jarraituko dute klimaren arazoa larriagotuz, petrolio ekoizpenaren beherakadak eragingo duelako orde- kotzat garrantzia handiagoa hartzea ika- tzak. Orain Europa desesperatuta Erru-

siari ikatz eske hasi izanak erakusten du hutsa balio zutela klimaren aldaketaren kontrako borrokan hartutako konpro- misoek.

Amaitzen du Turielek: “Trantsizio energetikoa, batzuek *ekologikoa* deitua, sekula ez dute antolatu konpontzeko klimaren arazoa, baizik eta petrolio-aren, gasaren eta ikatzaren gailurrek era- gindako krisi energetikoa konpontzeko. Ezinezko trantsizio energetiko eredu horretan asmo onez sinesten duten per- tsonek zabaldu beharko lituzkete be- giak eta ohartu hemen axola zitzaiena ez zela ingurumenaren defentsa, gutxi batzuen negozioa baino. Nahiz eta ho- nek denok eramango gaituen irteerarik gabeko kalezulo batera, bai gizarte eta bai zibilizazio gisa”. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com

